

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Zaborrak bildu eta ezabatzeko zerbitzua prestatze-tasaren kontribuzio padroia. 2018ko urtea. (Espedientea: 2019/24/S213)**

Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketaren Zerbitzuak prestatu egin du 2018 eragiketa urterako Audio udalerrri barrutian zabor bilketa eta ezabaketa zerbitzua emateagatiko tasari dagokion kontribuzio-zerrenda edo errolda.

Alkate-udalburuak onartu du 2019ko abenduaren 30a, 3205 zenbakia duen ebazpenaz. Zerrenda hori jendaurrean erakutsiko da ALHAOn iragarki honen argitalpen egunaren biharamunetik hasita hamabost (15) lan eguneko epean zehar.

Interesa dutenek aipatu den tributazioko espediente hori aztertu ahal izango dute herriko etxeko -udaletxeko- Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzuko Udal Kudeaketa Arloko bulegoan (Herriko Plaza bigarren solairuan) 9:00/14:00 ordutegi barruan. Formula ditzakete, baita ere, euren eskubideekiko egoki eta komenigarri irizitako azalpen eskaerak, alegazioak edo/eta erreklamazioak.

Kontribuzio padroia jendaurrean erakustek esan nahi du eta suposatzen du bere barruan sartuta dauden kitapenen jakinarazpen kolektiboa egiten dela, otsailaren 28ko, 6/2005 Arabako Tributuen Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 3. atalak eta kudeaketari, bilketari eta ikuskapenari buruzko udal ordenantza fiskal orokorreko 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatu den alkate-udalburuko ebazpenaren aurka kontribuzioa ordaindu beharra dutenek berraztertze errekurtsua jarri dezakete, hilabete bateko (1) epearen barruan, iragarki honen jendaurreko erakusketa aldia amaitu ondorengo biharamunetik zenbatzen hasita.

Azalpen eskaerak, alegazioak, erreklamazioak eta berriro aztertze errekurtsuak alkate-udalburuari zuzendu behar zaizkio, lehenago aipatu den epearen barruan.

Borondatez ordaintzeko epea, bi hilabetekoa izango da, 2020ko otsailaren 6 egunetik 2020ko apirilaren 6 egunera arte, biak barne hartuta.

Helbideratuta dauden errezihoak 2020ko martxoaren 6 egunean kobratuko dira.

Tasaren ordainketa banku edo aurrezki kutxan helbideratu barik duten herritarrentzako kobrantza eta dirubilketa Kutxabank, Laboral Kutxa eta Nafarroako Rural Kutxako bulegoen bitartez egingo da, kutxa horiek herritarren arretarako zabalik dauden ordutegian zehar, kobrantzaz arduratuko den kutxak etxera bidalitako ordaindu beharreko errezihoak aurkeztuta. Erreziborik ez bada jaso ala jasotakoa galdu bada, errezihoaren ale bikoiztua eskatu herriko etxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ), Herriko Plaza, behea ezkerrean.

Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu barik geratu diren errezihoak automatikoki eta berez behartze-bidezko derrigorreko kobrantza prozeduran sartuko dira eta ordaindu beharreko zenbatekoari gehitu beharko zaizkio legeetan erabakitako gainkarguak, berandutza-korrituak eta, hala badagokio, sor litezkeen berandutza eta behartze-bideagatiko kostuak.

Laudio, 2019ko abenduaren 30a

*Alkate-udalburua*  
**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**